

## **FUNTSESKO BALIABIDEAK**

Gure enpresa sortu ahal izateko lehengaiak beharko ditugu, ez bakarrik baliabide fisikoak, ekonomikoak eta intelektualak ere. Testu honetan, ezinbestekoak diren baliabideak adieraziko ditugu.

Hasiera batean, baliabide fisiko batzuk beharko ditugu, batez ere patinete elektrikoak izango dira hauek. Pentsatuta daukagunez, hasiera batean 20 patinete jarriko ditugu eskualdeko herri bakoitzean gutxi gora behera, ondoren ikusten joango gara zer arrakasta dugun eta patinete gehiago erosiko ditugu beharrezkoa bada. Bestalde, QR ak ere egin behar ditugu, baita posterrak egiteko materiala ere, gure ideia publizitzeko.

Gure proiektuan martxan jartzeko funtsezko baliabide finantzario nagusia dirua izango da. Hasiera batean dirurik edukiko ez dugunez aipaturako balibide fisikoak ordaintzeko, banketxeari mailegu bat eskatuko diogu hasierako gastu hauek ordaintzeko proiektuarekin hasteko.

Baliabide intelektualak ezinbestekoak izango dira gure proiektuak arrakasta edukitzeko, lan batzuetaz gu arduratuko gara baina beste lan batzuetarako laguntza beharko dugu. Guk patineteak erosiko ditugu eta udaletxetara joango gara herri bakoitzean baimena lortzeko eta herri bakoitzean leku egokiena aurkitzeko, gainera gu posterra egiteko gai izango gara, baina beste pertsonen laguntza beharko dugu patinetetan kokatuko dugu QR a eta gure aplikazioa sortzeko.



Beste alde batetik, gure enpresako kontuak gu geuk manejatuko ditugu, ekonomia asko gustatzen zaigulako hiruroi, eta prest ikusten gara gure enpresa kontrolatzeko, gainera hasiera baten zaila izango litzake beste norbait ordaintzea guk egin ditzakegun gauzengatik.

Hau guztia labor esanda, gure proiektuak arrakasta izateko, gure lanak garrantzi handia izango du, baina gure lana ez da izango behar dugun bakarra, pertsona eta enpresa ezberdinen laguntza beharko dugu, gure funtsezko baliabideak lortu ahal izateko, bai baliabide fisikoak, ekonomikoak eta intelektualak, guztiak garrantzi handia dute, eta gure proiektua ondo ateratzeko ezinbestekoak izango dira.